# Zatoz eta ikusiko duzu Atxarte

*HAUXE da egiten gehien kostatu zaidan editorialea denbora askoan. Gehien berregin dudana da. Hasieran «Atxarte desagertu egiten da» titulatzen zen. Gero, egun batzutarako, «Biwak bat Labargorrin» izan zen. Ondoren, ba dut beste bat «Eskalatzea galerazia» dioena. «Abadiño Atxarteren kontra»-ere jarri nuen behin. Gertatzen dena zera da, hain gai oinarrizkoa da, hain barrura sartzen zaigu burruka hau, hain hurbiletik jarraitzen dugu, eta hainbestetan ematen du heldu hurran gaudela, ez dakidala oso ondo zein izan behar den momentu bakoitzeko mezua. Gauzak horrela, bide desberdinetatik hurbilduko naiz Atxartera, zeozergatik bait gara mendizaleak eta dago mendia ibilbidez beterik.*

*Hasiko naiz esanez zeharo baikorra naizela eta sinesten dut, espero eta desiatzen dut ezen Pyrenaicaren negu-alea kaleratzen denerako arazoa konponduta egongo dela, Atxarte salbatu dela esateko garantiak izango direla, eta beharbada hamakakoek joan ahal izan dute etxera Gabon Gaua pasatzera. Zeren gogorra izan behar izan du haizeari, hotzari, bakardadeari eta mehatxuei gogor egitea bakarrik, han goian.*

*Baina asaskatu nahi dut nire burua sufritzen eta protestatzen bait nago orain dela asko. Eta protestaren historia egitera noa, 1977. urte hartatik hasirik, zeinean Bizkaiko GMEkook Bilbon sentikortuenen ahaleginak elkartzeko eta egosra salatzeko debate publiko bat antolatu bait genuen. Egia esan ekintza testimoniala baino ez zen, mingarria eta esperantzarik gabea, baina hedatu egin zen protesta oso. Harrobien kondena derrigorrezko aipamena izan da Atxarte edo berau osotzen duten mendiei buruz idazten edo hitzegiten zuen edonorentzat. Kondena erabatekoa baina alferrikako emaitzak. Harrobiek urrikigabeki jarraitzen zuten Atxarte suntsitzen. Azkenik Urkiolako Parke Naturalaren barruan kokatuak izateak suposatu du beren suntsipen-prozesua azeleratzea eta honek erantzun aktiboaren agerpena ondorioztatu du.*

*Orain beste bide batetik noa. Esaten dute, eta seguru dakitela zergatik esaten duten, ekologia guztion ardura dela. Naturaren defentsak guztion sakrifizioa esigituko duela. Lagun nazazue Atxarteko egoerak gehien afektatzen dituenei begiradatxo bat botatzera, eta leku gutxi dudanez baztertu egiten ditut ekologistak, zeintzu beren definiziogatik nahi eta nahi ez sarturik dauden gai honetan.*

*Hasteko, Administrazio Publikoaren agintariak, erabakitzeko gaitasuna dutenak. Haiengan isladatzen bait da hurrengo belaunaldiei emango diegun herria aurrerakuntza ekonomikoaren eta bizitza-kalitatearen arteko ahalik eta konbinaziorik onena izan dadin lortzeko obligazioa. Beren lan pertsonaia zaila bait da ingurugirorako eta ekonomiarako politikan erizpide zehatzak ez dauden bitartean. Eta naturaren defentsaren aldeko beren aukerak ez bait dira politikoki errentagarri izango epe laburrera.*

*Batez ere, harginak. Uste dut honez gero inbertsioa errentabilizatuko zutela, berriztagarria ez den baliabide baten kantitate izugarriak eramanez, guztiona den eta guztiok galtzen dugun aparteko inguru bat apurtuz. Kontzesioa amaitzen da. Agian lehia lezakete Atxarterako errekuperazio-plan batetan. Eta bestela, bete ditzatela langileekiko eta kontratistekiko beren konpromezuak beste lekuren batetan, gu beste guztiok hain arin txiroago egingo ez gaituzten lekuren batetan.*

*Eta, azkenik, zuok mendizaleok. Zatozte Atxartera, eskalatzea gustatzen ez zaizuen arren. Gogoratuko duzue seguru asko. Era guztietako igonaldiak egiteko posibilitateak ematen dituzten hiru mendi izugarri daude, atseginez bete ahal zaituztetenak. Zatozte eta ikusiko duzue zerbait, lehenago leku miresgarria zena, ezerezaren indarrek kendu hurran egonekoa eta oraindik inguru bat errekuperatzeko eredu ere bilakatu daitekeena.*

# Ven y verás Atxarte

**ESTE es el Editorial que más me ha costado hacer desde hace mucho tiempo. Es el que más veces he rehecho. Al principio se titulaba «Atxarte desaparece». Luego, durante unos días, era «Un vivac en Labargorri». Después, todavía tengo otro que dice «Se prohíbe escalar». Incluso puse una vez «Abadiño contra Atxarte». Lo que pasa es que es un tema tan fundamental, es una confrontación que nos llega tan adentro, que estamos siguiendo tan de cerca y a veces parece que estamos tan a punto de llegar al final, que no sé muy bien cuál debe ser el mensaje en cada momento. Así que voy a acercarme a Atxarte por distintos caminos, que para eso somos montañeros y el monte está lleno de itinerarios.**

**Empiezo confesando que soy profundamente optimista y creo, espero y deseo que para cuando el número de invierno de Pyrenaica salga a la calle, el problema estará resuelto, habrá garantías de que Atxarte se ha salvado y quizá los de la hamaca hayan podido ir a pasar la Nochebuena a casa. Porque ha tenido que ser muy duro allá arriba resistir el viento, el frío, la soledad y las amenazas.**

**Pero quiero desahogarme porque para eso estoy sufriendo y protestando desde hace mucho. Y voy a hacer historia de la protesta, desde aquel 1977 en que en el GAM de Bizkaia montamos en Bilbao un debate público para denunciar la situación y agrupar los esfuerzos de los más sensibilizados. La verdad es que era una acción testimonial, con dolor y sin esperanzas, pero la protesta se generalizó. La condena de las canteras ha sido una referencia obligada para todo el que hablaba o escribía de Atxarte o las montañas que lo componen. Condena unánime pero resultados nulos. Las canteras continuaban inexorablemente llevándose Atxarte a pedazos. Hasta que finalmente, su inclusión dentro del área del Parque Natural de Urkiola ha acelerado su proceso de destrucción y ha hecho saltar la chispa de la contestación activa.**

**Ahora voy por otro camino. Dicen, y seguro que saben por qué lo dicen, que la ecología es asunto de todos. Que la defensa de la naturaleza exigirá el sacrificio de todos. Acompañadme a echar un vistazo a aquellos que más nos afecta Atxarte, y como tengo poco sitio me salto a los ecologistas que, por su propia definición, están irremisiblemente involucrados en el tema.**

**Primero, las autoridades de la Administración Pública, las que tienen capacidad de decisión. Porque se refleja en ellas la obligación de conseguir que el país que entregamos a las siguientes generaciones sea la mejor combinación posible de progeso económico y calidad de vida. Porque su labor personal es difícil mientras no existan unos criterios explícitos de política económica y medio ambiental. Y porque sus opciones en defensa de la naturaleza no van a ser prácticamente nunca políticamente rentables a corto plazo.**

**Sobre todo, los canteros. Yo creo que ya habrán rentabilizado la inversión llevándose cantidades de un recurso que no es renovable, rompiendo un paisaje extraordinario que es de todos, que perdemos todos. La concesión se acaba. Quizá puedan competir en un plan de recuperación de Atxarte. Y si no, que cumplan sus compromisos con los trabajadores y los contratistas en otro sitio, donde no nos hagan tan pronto más pobres a todos los demás.**

**Y, por fin, vosotros los montañeros. Venid a Atxarte, aunque no os guste escalar. Probablemente lo recordáis. Hay tres magníficas montañas con posibilidad de variadas ascensiones, que os pueden llenar de satisfacción. Venid y veréis algo que era una maravilla, que ha estado a punto de ser arrebatado por las fuerzas de la nada y que incluso puede llegar a ser un ejemplo de recuperación paisajística.**